OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALA
Udal Osoa
AKTA

ZB. 2026 / 10

AKTA

UDAL OSOKO EZ-OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ez-ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/08/06
Ordua: 12:30ak
Tokia: Udaletxeko areto nagusian
Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure
Zinegotziak:

EH Bildu
- Agustin Lekuona Irastorza
- Garazi Urdampilleta Astibia
- Nora Velez del Burgo Zalakain
- Jexux Olaziregi Bagües
- Edorta Fernandez Etxepeteleku
- Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
- Ekain Susperregi Ibarguren
- Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV
- Janire Mitxelena Lekuona

Idazkaria:

Mª Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:
- Olaia Lasa Olaziregi
- Ibon Mitxelena Fernandez
- Oihana Irastorza Gonzalez
- Ibintza Iragorri Iriarte
- Rafael Bergaretxe Urdampilleta
- Maitane Larruskain Agirre
- Iñaki Arbelaiz Mitxelena

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

OIARTZUNGO
UDALA

AZTERGAIAK:

1. 0-2 urte bitarteko haurrentzat beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan jangela zerbitzua jartzeko izapidetza (2026ID550001).

2. Oiartzungo Udaleko 0-2 urteko haurrentzat jangela-zerbitzua arautzeko araudia (2026ID340002).

-I-

0-2 URTE BITARTEKO HAURRENTZAT BEREN HEZKUNTZA ETA ZAINTZAKO INGURUNE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOAN JANGELA ZERBITZUA JARTZEKO IZAPIDETZA

Alkateak azaldu duenez, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak 2 urteko gela mantenduko du, eta 0-2 urte bitarteko gela Haurreskolak Partzuergoaren esku geratuko da. Ondorioz, udalaren asmoa da, familiek hala baloratu dutela kontuan hartuta, 0-2 urteko Haurreskolan jangela-zerbitzua eskaintzen jarraitzea, hala nahi duten familiei zerbitzu hori bermatzeko. Gaurko osoko bilkuran hartuko diren erabakiak helburu horrekin lotuta daudela adierazi du.

Azaldu duenez, zerbitzu hori lehenago ere eskaintzen zen eta balorazio positiboa jaso izan du; horregatik, udalaren nahia da zerbitzuarekin jarraitzea.

Horretarako, udalaren araudia onartu beharko da, eta dagokion kontratazio publikoaren prozedurari ekingo zaio. Idazkariak eta kontu-hartzaileak dagozkien txostenak egin dituzte, eta Azterketa Batzordeak ere justifikazio-memoria prestatu du. Ondoren aztertuko den gaian, erregelamenduaren hasierako onarpena proposatzen da.

Azalpenak amaitu ondoren, alkateak ebazpen-proposamena irakurri du.

Oiartzungo udala, 1995 urtez geroztik, herriko 0-3 urte bitarteko haur-hezkuntzako zerbitzua eman du, horretarako sortutako udal ikastola Partzuergoaren bitartez. Horrekin batera, aipatu adineko haurrek eguerdiko otordua hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektibo horretan jaso dezaten, udalak, Partzuergoaren bitartez, janaria prestatzeko jangela zerbitzua ere eman du azken 31 urteetan.

Jaurlaritzako Hezkuntza sailak udal haur-eskolen zerbitzua diruz laguntzeari utziko ziola jakinarazi zuenetik, hainbat espediente tramitatu dira, horien artean nabarmentzekoa 0-2 urteko haur-eskola zerbitzua Oiartzunen kudeatzeko udala Haurreskolak Partzuergoan integratzearena. 2 urteko gelen zerbitzuari dagokionez, jatorrizko baimena zuen Haurtzaro ikastolak baimen hori berreskuratu arte udal partzuergoak zerbitzua ematen jarraitzea adostu da Hezkuntza sailarekin.

Gauzak horrela, udal hezkuntza zerbitzuak proposatu du, udalak 0-2 urteko haurrek eguerdiko otordua hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektibo horretan jaso dezaten, udalak jantokiaren zerbitzua ematen jarrai dezala.

Horrenbestez, espedientean txosten teknikoak, idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak, Azterketa Batzordeak egindako justifikazio-memoria eta zerbitzuaren erregelamendu-proiektuak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko uztailaren 30ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

OIARTZUNGO
UDALA

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzat, beren hezkuntza- eta zaintza-ingurune pertsonal eta kolektiboan, jantoki-zerbitzua emateko jarduera ekonomikoa gauzatzeko espedienteari hasiera ematea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 97.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, horretarako Udalbatzako kideek eta udaleko langile teknikoek osatutako Azterketa Batzordea aldez aurretik izendatu ondoren.

Bigarrena.- 0-2 urte bitarteko haurrentzat beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan jantoki zerbitzua emateko memoria eta erregelamendu-proiektua kontuan hartzea.

Hirugarrena.- Zerbitzu publikoa kudeatzeko modutzat hartzea kontratazio publikoaren bidezko zeharkako kudeaketa.

Laugarrena.- Memoria eta erregelamendu proiektua hogeita hamar egun naturaleko epean jendaurrean jartzea, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta udal honetako iragarki-oholean iragarriz, partikularrek eta erakundeek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten. Halaber, interesdunen eskura egongo da Udalaren web orrian (www.oiartzun.eus).

Alkateak amaitu eta Janire Mitxelena EAJ/PNV taldeko zinegotziak hitza hartzen du eta honako esaten du.

“Gaur abuztuaren 6a da, eta ez da ohikoa abuztuan udalbatza egitea. Hala ere, gaur hemen gaude. Ikasturtea hasteko hilabete baino gutxiago falta denean, jangela-zerbitzuaren araudia onartzera gatoz, gure ustez epez kanpo. Horrek agerian uzten du erabakiak ez direla garaiz hartu eta kudeaketa ez dela behar bezala egin.

Hilabete hauetan behin eta berriz esan dugu administrazioan epeak garrantzitsuak direla, baina hezkuntzan are garrantzitsuagoak. Hilabeteetan entzun dugu integrazioarekin nahikoa zela, dena kontrolpean zegoela eta lanean ari zinetela. Gaur, ordea, beste espediente oso bat ekarri duzue, eta horrek erakusten du integrazioak ez zuela arazo osoa konpontzen. Gainera, aurretik bazenekiten Haurreskolak Partzuergoak ez zuela jangela-zerbitzurik ematen.

Ondorioz, Oiartzungo Udalak zerbitzu berri bat sortu behar izan du: beste espediente bat, beste araudi bat, beste kontratazio-prozesu bat eta, azken finean, beste antolaketa bat. Zerbitzu berri bat sortzea ez da berez arazo bat; arazoa da hori guztia epe barruan egin behar dela. Horregatik zen hain garrantzitsua erabakia garaiz hartzea.

Hilabeteak pasatzen uzten direnean, ondorioak etortzen dira, eta gaur hemen gaude ondorio horiei irtenbidea bilatzen. Batzordean, Joana, zuk zeuk esan zenuen jangela-zerbitzua orain arte bezala izango zela. Baina niri galdera bat sortzen zait: zer esan nahi du zehazki “orain arte bezala” esateak?

Izan ere, gaur egungo egoera ez da orain artekoa bezalakoa. Orain, eraikin berean bi administrazio daude: alde batetik, Haurreskolak Partzuergo publikoa, eta bestetik, udalaren ardurapean dagoen HH2 gela. Gainera, jangela-zerbitzua ez du Haurreskolak Partzuergoak emango; udalak antolatuko du, kontratazio publiko baten edo dagokion kontratu-formularen bidez.

Beraz, nire galderak honako hauek dira: nork emango du zerbitzua? Kontratu hori esleituta al dago? Noiz egingo da kontratazioa? Noiz sinatuko da kontratua? Noiz jakinaraziko zaie familiei? Eta, batez ere, zer esan nahi du benetan jangela-zerbitzua “orain arte bezala” izango dela esateak?

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Niri oraindik argitu gabe dagoen zalantza bat sortzen zait. Azken hilabeteetan ate komunikatzaile bat egiteko aukera planteatu zen; ondoren, leiho bat jartzea aipatu zen. Gaur, ordea, espediente honetan ez dugu horren inguruko azalpenik aurkitu.

Horregatik galdetzen dugu, uztaileko osoko bilkuran egin genuen bezala: zein zen komunikazio horren helburua? Ez ote zen aurreikusten HH2ren aldeko sukaldearen eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko komunikazio funtzional bat ezartzea? Horrela bada, zein izango litzateke horren oinarri juridikoa? Eta zein oinarri sanitarioa?

Eta hala ez bada, zergatik planteatu zen hasieratik ate bat? Eta, ondoren, zergatik leiho bat? Benetan ez al da argi geratu bi administrazio-zentro ezberdin direla, bi titularitate desberdinekin, bi antolaketa desberdinekin eta, ondorioz, bakoitzak bere funtzionamendu propioa izan behar duela?

Beste galdera bat ere egin nahi dugu. Zer gertatuko da etorkizunean HH2k erabiltzen duen sukaldearekin? Dakigunez, 2026-2027 ikasturtean HH2 udalaren ardurapean egongo da, baina ondoren Haurtzaro Ikastolaren esku geratuko da. Horrela bada, nola justifikatzen da Haurreskolak Partzuergo publikoak sukalde propiorik ez izatea? Nola bermatuko da udalaren neutraltasuna egoera horretan?

Guk ez dugu inoiz zentro baten alde egin, ezta bestearen aurka ere. Guk beti printzipio berak defendatu ditugu: berdintasuna, aukera-berdintasuna, baliabide berberetarako sarbidea eta udalaren neutraltasuna. Horregatik, gaur azalpen argiak eta zehatzak eskatzen ditugu.

Bestalde, atentzioa eman zidan beste gai bat ere aipatu nahi nuke. Uztaileko osoko bilkuran esan zitzaigun galderak batzordeetan egin behar genituela. Gure erantzuna argia izan zen orduan, eta gaur ere aktan jasota gera dadila nahi dugu.

Legeak ahalbidetzen dizkigun foro guztietan galderak egiten jarraituko dugu. Batzordeetan egingo ditugu, baina baita osoko bilkuretan ere. Bi organoetan galderak egiteko eskubidea dugulako, eta herritarrek ere erantzunak jasotzeko eskubidea dutelako.

Galderak egitea ez da oposizioaren kapritxo bat; galderak egitea gobernuaren jarduna kontrolatzeko tresna da, eta hori da, hain zuzen ere, gure erantzukizuna.

Amaitu aurretik, azken ohar bat egin nahiko nuke. Aurreko osoko bilkuran Maribi ez zegoen bertan, baina nahi dugu gai hau berriro mahai gainean jartzea.

Uztaileko osoko bilkuran, Joanak adierazi zuen 2025eko abenduaren 22an jardueraren baja izapidetu eta onartu zela. Une horretan bertan, guk abenduko osoko bilkuran hartutako akordioa irakurri genuen, eta akordio horretan eskualdatzea jasotzen da, ez jardueraren baja.

Orduan, alkateak erantzun zigun jardueraren baja espedientean jasota zegoela eta berak dokumentazioa ikusita zuela. Horregatik, galdera oso zuzena egiten dugu berriro: zein espedientetan eta zein dokumentutan agertzen da baja hori? Zein txostenetan? Zein orrialdetan? Benetan existitzen bada, ikusi nahi dugu.

Ez dugu interpretaziorik eskatzen, ezta kontakizunik ere. Dokumentazioa eskatzen dugu. Gardentasuna eta zehaztasuna besterik ez dugu eskatzen.

Gaur ez gara jangela baten aurka etorri. Ez gara catering-zerbitzu baten aurka etorri. Eta, jakina, ez gara haurrei zerbitzu bat kentzera etorri. Guk nahi duguna da haur guztiek kalitatezko zerbitzua izatea, baina baita administrazio serio batek eskatzen duen plangintza ere.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Gaurko osoko bilkurak, gure ustez, erakusten du hori ez dela gertatu. Abuztuaren 6an gaude, ikasturtea hasteko hilabete baino gutxiago falta da, eta gaur oraindik jangela-zerbitzua arautzen ari gara. Hori ez da plangintza. Hori ez da aurreikuspena. Hori azken uneko kudeaketa da.

Amaitzeko, printzipio politiko bati buruz hitz egin nahiko nuke. Gure taldeak beti defendatu du lankidetza publiko-pribatua, eta horretan eroso sentitzen gara. Uste dugu interes publikoaren mesedetan denean lankidetza hori baliagarria izan daitekeela.

Baina beste printzipio bat ere badugu: erakunde publiko batek, ahal duen guztietan, zerbitzu publikoa lehenetsi behar du. Aukera publiko bat existitzen denean, aukera hori indartu egin behar da. Hori ez da inoren aurka egitea; hori administrazio publiko baten erantzukizuna ulertzea da.

Horregatik egiten ditugu gaur galdera hauek. Ez zentro baten alde egiteko, ez beste baten aurka egiteko, baizik eta udalaren neutraltasuna, aukera-berdintasuna eta interes publikoa bermatzeko.

Eta horregatik amaitzen dugu galdera batekin: benetan uste duzue abuztuaren 6an, ikasturtea hasteko aste gutxi batzuk falta direnean, jangela-zerbitzua oraindik arautzen aritzea kudeaketa onaren adibidea dela?

Gure ustez ez. Gure ustez, gaurko eztabaida ez da jangela bati buruzkoa, ez catering-zerbitzu bati buruzkoa, ezta ate edo leiho bati buruzkoa ere. Gaur hemen eztabaidatzen ari garena kudeatzeko modu bat da.

Eta gure ustez, prozesu honetan hiru gauza falta izan dira: plangintza, gardentasuna eta erabakiak garaiz hartzea.

Administrazio on batek ez ditu erabakiak azken uneraino atzeratzen. Administrazio on batek aurreikusi egiten du, planifikatu egiten du, gardentasunez jarduten du eta erabakiak garaiz hartzen ditu.

Gure ustez, gaur eztabaidatzen ari garen espedienteak erakusten du prozesu honetan hori falta izan dela, eta denbora gehiegi eman dela eztabaida politikoetan eta konponbideak behar bezala prestatzen baino.

Horregatik, oposizio arduratsu batek egin behar duena egiten jarraituko dugu: galderak egin, azalpenak eskatu eta herritarren interesak defendatu.

Hori da administrazio on baten oinarria. Eta hori merezi dute Oiartzungo familiek, haurrek eta baita udaleko langileek ere.

Horregatik guztiagatik, gure taldeak ez du inola ere zalantzan jartzen jangela-zerbitzuaren beharra. Baina ezin dugu espediente honen alde bozkatu.

Gure ustez, espediente hau berandu iritsi da, eta haren atzean dagoen prozesua ez da behar bezala kudeatu. Horregatik, eta erantzukizunez, gure botoa abstentzioa izango da.”

Alkateak hitza hartu eta honela erantzuten du:

“Zuk esan duzu administrazio on batek plangintza, gardentasuna eta aipatu dituzun beste horren beste gauza behar dituela, kasu honetan, Hezkuntza Sailari buru ari zera?”

Janire Mitxelenak erantzuten du:

“Nire ustez jangela zerbitzua gure ardura dela, ezta?”

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Alkateak galdetzen dio:

“Guk prozesu hau guztia noren eskutik egin dugu? Hezkuntza Sailaren eskutik. Ez dira gure eskumenak; hezkuntzaren arloko eskumenak dira, eta haiek ezarritako arau eta irizpideen arabera jardun dugu.

Asko izan dira Hezkuntza Sailera bidali ditudan mezu elektronikoak, eta horietako askok ez dute erantzunik jaso. Hori zuek ere badakizue.

Hilabeteak pasatzen utzi dituena, agian, Hezkuntza Saila izan da. Nik erakundeen arteko leialtasunean sinesten dut, eta uste dut kasu honetan, beste batzuetan bezala, egoera bera gertatu dela. Musika-eskolaren espedientean, esaterako, antzeko egoera batean aurkitu ginen.

Kasu horretan ere ez dakigu bestelako interesik egon den ala ez; gure aldetik, behintzat, ez. Gure helburua erreleboa egitea besterik ez zen, eta bi espedienteetan antzeko egoerarekin egin dugu topo.

Horregatik, uste dut egokiena izango litzatekeela Hezkuntza Sailaren jarduna aztertzea: haren gardentasuna, izapidetze-moduak, planifikazioa eta gauzak egiteko modua.

Beraz, oso argi utzi nahi dut gure epeak Hezkuntza Sailak ezarritakoak izan direla.

Bestalde, beste galdera bat egin nahi nioke EAJ udal taldeari: jangela-zerbitzuari buruzko txostena irakurri al duzue?”

Janire Mitxelenak:

“Bai.”

Alkateak:

“Txostenean aipatzen diren jangela zerbitzuaren helburuak zeintzuk dira?”

Janire Mitxelenak:

“Orain arte bezala jarraitzea, ezta?”

Alkateak:

“Zuk galdetzen duzu zer den orain arte bezala jarraitzea, ba txostenean zer jartzen du?”

Janire Mitxelenak:

“Kilometro 0 mantentzea.”

Alkateak:

“Esan duzun horrekin bat gatoz. Jangela-zerbitzu baten helburua ez da soilik otordu bat ematea; elikadura osasungarria bermatzea, familien kontziliazioa erraztea eta haurren ongizatea zaintzea ere bada.

Hori da, hain zuzen ere, jangela-zerbitzua orain arte bezala mantendu nahi dugula esaten dugunean adierazi nahi duguna. Hau da, guretzat garrantzitsuena da haur guztiek kalitatezko zerbitzua jasotzea, berdin delarik zein zentrotan matrikulatuta dauden.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Udalaren ikuspegitik, gure konpromisoa argia da: haur guztiei kalitate goreneko otorduak eta zerbitzu egokia bermatzen jarraitzea. Azken batean, hori da gure egitekoa, eta hori da administrazio gisa dugun erantzukizuna.

Eta galderei dagokienez, zuk esan duzun bezala, galderak egin daitezke gobernu-taldearen jarduna kontrolatzeko, eta hori oposizioaren eginkizun legitimoa da. Baina helburua, denona izan beharko lukeena, herritarren ongizatea izan behar da; zuk zeuk sarritan aipatzen duzun bezala.

Hemen elkarrizketarako aukerak egon dira, eta badaude. Zuek nahi duzuenean eta nahi dituzuen gaien inguruan hitz egiteko aukera izan da. Baina, gure ikuspegitik behintzat, nahi ez duzuenean ez da elkarrizketarik egoten; galdera-zaparradak eta etengabeko konfrontazioa baino ez dira geratzen.

Eta hori zertarako? Nora iristeko?

Nik, behintzat, ez dut ikusten jarduteko modu horren atzean akordioak bilatzeko benetako borondaterik dagoenik. Askotan ematen du helburua ez dela irtenbide partekatuak aurkitzea, baizik eta desadostasunak azpimarratzea.

Bestalde, nire ustez herri honek aurrera egin du, eta aurrera egiten jarraituko du, hainbat arlotan akordioetara iristeko gaitasuna erakusten badugu. Horretarako, ordea, interesa erakutsi behar da, elkarrizketarako prest egon behar da eta lehentasunak argi izan behar dira.

Galdera da zer lehenesten dugun: herritarren ongizatea lehenestea eta horren alde erabakiak hartzeko prestutasuna erakustea, ala hurrengo egunean egunkari bateko titularra izatea.

Guk argi daukagu zein den gure lehentasuna. Herritarren ongizatea, zerbitzu publikoen kalitatea eta Oiartzunen etorkizunerako erabaki egokiak hartzea. Eta horretarako, desadostasunak izan arren, elkarrizketarako, adostasunerako eta erantzukizunerako prest egoten jarraituko dugu.”

Udal Idazkariak hitza hartzen du:

“Ez-ohikotasunari dagokionez, eta ikuspegi juridikotik aztertuta, abuztuan udalbatza egiteak ez du inolako eragozpen legalik. Osoko bilkura ez-ohikoa izatea dagokion organoak onartu behar du, eta espedientean premiazko izaeraren justifikazioa jasota dago.

Kasu honetan, justifikazioa argia da: Haurreskolak Partzuergoak ez zuen erabakirik hartu uztailaren 29ra arte. Ondorioz, udal honek ezin izan zuen jarduera ekonomikoaren egikaritzarako espedientea martxan jarri aurretik, ez baitzegoen argi 0-2 urte bitarteko zerbitzua orain arte bezala Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak emango zuen ala ez.

Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak Oiartzungo Udalaren integrazioa onartu zuela jakin bezain laster, espedientea martxan jarri genuen. Horrek esan nahi izan du udaleko beste lan eta lehentasun batzuk alde batera utzi behar izan ditugula, egoerak eskatzen zuen premiaz jarduteko.

Gainera, une oro kontziente izan gara ikasturtea hasteko oso denbora gutxi geratzen dela, eta horregatik bideratu dira ahalegin guztiak beharrezko izapideak lehenbailehen amaitzera.

Beraz, gure iritziz, osoko bilkura hau ez-ohiko deitzeko arrazoia ez dago zalantzan jartzerik. Ikuspegi juridikotik behar bezala justifikatuta dago, eta administrazioaren jardunak egoeraren premiei eta beste administrazio batek hartutako erabakiaren egutegiari erantzun die.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Izan ere, udal honek ez du bere kabuz markatu espediente honen hasiera-data; abiapuntua Haurreskolak Partzuergoak hartu beharreko erabakia izan da. Erabaki hori hartu denean, dagokion prozedura abiarazi dugu eta, ahal izan den neurrian, ahalik eta arinen izapidetu dugu, betiere zerbitzua ikasturte hasierarako bermatzeko helburuarekin.

Horregatik, ez-ohikotasunaren inguruko eztabaidatik harago, benetako gakoa da udal honek zerbitzua bermatzeko beharrezko neurriak hartu dituela eta haurrek nahiz familiek ikasturtea normaltasunez hasi ahal izatea dela gure lehentasun nagusia.”

Alkateak hitza hartu du:

“Azpimarratzekoa da oraintxe Idazkariak aipatu duena. Izan ere, uztailaren 29ra arte ez genuen jakin Haurreskolak Partzuergoaren integrazioa gauzatuko zen ala ez, alegia, haien erabakia zein izango zen.

Eta hau ez da izan gure aldetik lanik egin ez delako. Aitzitik, lanean aritu gara etengabe, baina ezin genuen espedientea behin betiko martxan jarri Hezkuntzaren erabakia ezagutu arte.”

Janire Mitxelenak:

Onartuko duzu urtarrilak 30erako integrazioaren erabakia hartu izan balitz, tramitazioa garaiz egingo zela.”

Alkateak:

“Usurbilek, Ordiziak baita Aretxabaletak ere, horiek aspaldi izapidetu zuten espedientea eta erantzuna gurekin batera jaso zuten uztailaren 29an hau da, Haurreskolak Partzuergoan integratuko zirela gurekin batera jakin dute. Denak larritasun berdina konpartitu dugu ikusirik ez genuela erantzunik jasotzen. Agian Hezkuntza Sailari kontsulta batzuk egin beharko zenizkieke.”

Janire Mitxelena:

“Baja eta altaren gaia ekainerako kontsultatua zuen gure taldeak. Bestalde, urtarrilaren amaierako Ordiziako udalak bazekien integratuko zela, gehienbat otsailerako publikatu zelako, harrigarria iruditzen zaidana da uztaila arte jakinarazpenik ez jasotzea.”

Alkateak:

“Orduan begiratu mesedez ea Hezkuntza saileko hartu emanak nola diren, ze erakunde bateri eskaera bat bidali eta erakundeak ikusten badu jasotako eskaera ez dela zuzena, nori dagokio zuzenketa proposatzea? Eskaera jaso duen erakundeari, ezta?”

Janire Mitxelenak:

“Lehen esandakoarekin jarraituz, Ordiziako udalak otsailerako beraien integrazioa onartua zeukaten, eta ondoren Haurreskolak Partzuergoak barne-administrazio bileran egin zuen, oker ez banago, apirilean eta horregatik egin genuen apirilean ez-ohiko bilera. Beraz, integrazioa apirilean izan zen. Orduan uztailaren 29 arte ez jakinarazi izanak harridura sortzen dit.”

Alkateak:

“Berriro diot, 2025ko uztailean erabaki genuenean 2 urteko gela horien titularitate aldaketa eta gure izapideak ez bagenituen zuzen egin, inondik inora ere ez zen asmo txarrez izan, gehien bat ez genuelako ezagutzen tramiteen nondik norakoa, Hezkuntza sailari zegokion guri jakinaraztea beste modu batera

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

egin behar genuela eta beraiek esan bezala egingo genuen, baina ez zigutenez ezer adierazi, ez zegoen gure esku beraz, ez leporatu gure taldeari egin ez genuen akats bat. Udalak 2025eko uztailetik hasi zuen 2 urteko gelen titularitate aldaketari dagozkion tramiteak. “

Janire Mitxelena:

“Dakizuen bezala abenduan ez zen titularitate aldaketarik egin.”

Alkateak:

“Ez zitzaigun jakinarazi ez ginela egoki egiten ari. Uztailetik abendu bitarte ez genuen erantzunik jaso, eta abenduan berriro idatzi genion Hezkuntza sailari jakiteko ea nola zegoen uztailean egindako eskaera, orduan erantzun ziguten izapideak beste modu batean egin behar genituela eta horren baitan gaia berriz Udal Osoko Batzarrera ekarri genuen. Azpimarratu nahi dut, gure taldea lanean jardun dela eta jarri dizkiguten epe eta jarraibideak bete ditugula. Titularitatearen gai bertan utziko dugu, hau ez da gaur hemen lantzen ari garena eta.”

Eztabaida amaitu ondoren bozketara ekin diote. Udal idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak, Azterketa Batzordeak egindako justifikazio-memoria eta zerbitzuaren erregelamendu-proiektuak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko uztailaren 30ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz onartu du, 0-2 urte bitarteko haurrentzat beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan jangela zerbitzua jartzeko espedientean izapidetzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	9	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	1	EAJ/PNV

-II-

OIARTZUNGO UDALEKO 0-2 URTEKO HAURRENTZAT JANGELA-ZERBITZUA ARAUTZEKO ARAUDIA

AURREKARIAK

Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzako jangela-zerbitzua arautzeko udal erregelamendua onartzeko espedientea izapidetu du.

Erregelamenduaren xedea da eskola egunetan haurren elikadura osasungarri, orekatu eta kalitatezkoa bermatzea, familien kontziliazioa sustatzea eta zerbitzua berdintasun-, irisgarritasun-, kalitate- eta jasangarritasun-printzipioen arabera ematea.

Udal idazkariak prozedurari buruz txostena egin du eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 22.2.d) artikuluan xedatzen duenaren arabera, Udalaren Osoko Bilkura da ordenantzak edo erregelamenduak onartzeko eskumena duen organoa, eta erabakia bertaratutako kideen gehiengo soilez hartu behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.1 artikuluarekin bat etorriz.

Erregelamendua edo ordenantza onartzeko edo aldatzeko proiektua egin aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan araututako kontsulta publikoa ez da egin. Espedientean jasota dago izapide hori salbuesteko txostena.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Txosten horretan behar bezala justifikatzen da kasu honetan 39/2015 Legearen 133.4 artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikagarria dela; izan ere, arau-proposamenak ez du jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik eta ez die hartzaileei betebehar garrantzitsurik ezartzen. Horrenbestez, ez da beharrezkoa aldez aurreko kontsulta publikoa egitea.

Ordenantzak egitean ala gauzatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jardungo dute: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Erregelamendu-proiektuen hitzaurrean behar bezala justifikatuta geratuko da printzipio horietara egokitzen direla.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.5 artikuluaren arabera, gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek aukera emango dute indarrean dagoen araudia eta hura egiteko prozesuaren dokumentuak erraz, modu unibertsal eta eguneratuan eskuratzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera; argi eta garbi definituko dituzte arau-ekimenen helburuak eta horien justifikazioa hitzaurrean edo zioen azalpenean; eta aukera emango dute hartzaile izan daitezkeenek arauak egiten parte-hartze aktiboa izan dezaten.

Alde horretatik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c) artikuluak dioenez, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, beren ekimeneko erregelamendu-proiektuak argitaratuko dituzte.

Ordenantza edo erregelamendua onartzeko proiektua egin eta jaso ondoren, udalbatzak hasierako onespena eman beharko dio (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua), Informazio Batzordearen irizpena jaso ondoren, eta jendaurrean jartzeko epea irekiko da, gutxienez hogeita hamar egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web orrian eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Horrenbestez, memoria, idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak, genero eragin txostena, eragin linguistikoaren ebaluazioa eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 30ean, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Hasierako onespena ematea Oiartzungo Udaleko 0-2 urteko haurrentzat jangela-zerbitzua arautzen duen erregelamenduari, eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, administrazio-espediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan eta web orrian espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe

Alkateak azalpenak amaitu ondoren. Bozketara ekin diote. Udal idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak, genero eragin txostena, eragin linguistikoaren ebaluazioa eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 30ean, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz onartu du, Oiartzungo Udaleko 0-2 urteko haurrentzat jangela-zerbitzua arautzeko araudia.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

OIARTZUNGO
UDALA

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	9	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	1	EAJ/PNV

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 13:00ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Oihane Mallagaray Revilla

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

OIARTZUNGO UDALA

I. ERANSKINA

OIARTZUNGO UDALEKO 0-2 URTEKO HAURRENTZAT JANGELA-ZERBITZUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

ATARIKOA

Oiartzungo udalerriko haur hezkuntza sisteman aldaketak eman berri dira. Aurrerantzean, 0-2 urteko gelak Haurreskolak Partzuergoak kudeatuko ditu, eta haur horiek eskola garaian kalitatezko bazkaria izan dezaten bermatzen jarraitu nahi du Udalak. Izan ere, Oiartzungo Udalak, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bitartez, janaria prestatzeko jangela-zerbitzua izan du haur horientzat azken 31 urteetan eta hiru hamarkadetan herritarren eskura egon den zerbitzu horrek horrela jarrai dezan bermatu nahi da.

Arautuko den zerbitzu hau behar-beharrezkoa da Oiartzunentzat, izan ere, familien kontziliazioan laguntzen du, elikadura osasuntsu eta orekatuaren bitartez Osasun Publikoaren eta gaixotasunen prebentzioaren alde egiten du, segregazioaren aurkako neurri gisa ere bere funtzioa du, hezkuntza-proiektuaren parte izan daiteke eta tokiko ekonomia babesteko eta Lehen Sektorea bultzatzeko aukera ere eskaintzen du. Era berean, zerbitzua dagokion haur-eskolaren hezkuntza-proiektuarekin bat etorriz garatuko da, haurren garapen integrala, hizkuntza-garapena eta euskararen erabilera naturala sustatzeko. Alegia, herriko 0-2 urte bitarteko haurren elikadura osasungarria eta jasangarria bermatzeko helburua du araudi honek, familien ongizatea eta benetako kontziliazioa sustatzeko eta tokiko elikadura-sistema eta -ohitura jasangarriak garatzeko.

Hortaz, araudiak jangela-zerbitzu horren funtzionamendua arautzen du, 0-2 urte bitarteko Oiartzungo haurren eskola-garaiko bazkarien irisgarritasuna berdintasun, kalitate eta jasangarritasun printzipioen aterpean eman dadin. Araudian jasota daude zerbitzuaren definizioa, erabiltzaile izaera hartzearen eta galtzearen nondik norakoak eta zerbitzuaren kudeaketa eta kontrola.

Ordenantza honek erantzuna ematen dio 0-2 urte bitarteko haurrentzako jangela-zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko premiari. Horretarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak hartu dira kontuan. Horrela, araudiak zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua bermatzeko ezinbestekoak diren alderdiak baino ez ditu arautzen.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da Oiartzungo 0-2 urte bitarteko haurren eskola-garaiko bazkariak bermatzeko jangela-zerbitzuaren edukia, helburuak eta erabilera baldintzak arautzea.

Zerbitzuaren helburua da eskola egunetan haurren elikadura osasungarri, orekatu eta kalitatezkoa bermatzea, familien kontziliazioa sustatzea eta zerbitzua berdintasun-, irisgarritasun-, kalitate- eta jasangarritasun-printzipioen arabera ematea.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.

Jangela-zerbitzua Oiartzungo Udalak herriko eta haur-eskolako 0 eta bi urte bitarteko haurrei ematen dien zerbitzu publikoa da, eta horren bitartez haurrei bazkaria emango zaie eskola-garaian, beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan.

Zerbitzuak barne hartzen ditu elikagaien prestaketa, garraioa hala dagokionean, banaketa eta bazkariaren kudeaketarekin zuzenean lotutako gainerako jarduerak.

Jangela-zerbitzua haurren hizkuntza-garapena laguntzeko eta euskararen erabilera naturala sustatzeko ingurune egokia izango da, dagokion haur-eskolaren hezkuntza-proiektuarekin eta Oiartzungo Udalaren hizkuntza-politikarekin bat etorriz.

3. artikulua. Zerbitzuaren finantzaketa.

Jangela-zerbitzua erabiltzaileek egindako ekarpenen bidez finantzatuko da, eta kostua estaltzeko Oiartzungo Udalaren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituen bidez osatu ahalko da.

Zerbitzuaren erabiltzaileek dagokien prezio publikoa ordaindu beharko dute indarrean dagoen ordenantza fiskalean edo hura arautzen duen xedapenenean ezarritakoaren arabera.

II. KAPITULUA

ERABILTZAILEAK

4. artikulua. Erabiltzaileak.

Jangela-zerbitzuaren erabiltzaile izango da bi ezaugarri hauetako edozein betetzen duena:

1.- Oiartzungo udalerrian erroldaturiko 0 eta 2 urte bitarteko haurrak.

2.- 0 eta 2 urte bitartekoak diren eta haurrentzako hezkuntza-zerbitzua Oiartzunen jasotzen duten haurrak.

Beti ere araudi honetan, zerbitzua arautzen duten gainerako arauetan eta Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

Erabiltzaile izaera zerbitzua erabiltzen den ikasturterako aitortuko da.

5. artikulua. Erabiltzaile izaera galtzea.

Ondorengo arrazoi hauek direla-eta galduko da jangela-zerbitzua erabiltzeko aukera:

a) Oiartzungo Udaleko dagokion Ordenantza Fiskalean xedaturiko prezio publikoa ordaintzeari uztea.
b) Erabiltzailea adinagatik haur-eskola zerbitzuaren hartzaile izateari uztea.
c) Zerbitzuaren erabiltzailearen legezko ordezkariek espresuki uko egitea, Ordenantza Fiskaletan ordainketen itzulerari buruz zehaztutakoaren kalterik gabe.

6. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Zerbitzu honi dagokionez, eskubide orokor hauek dituzte erabiltzaileek:

a) Kalitatezko elikagaiak jasotzeko eskubidea.
b) Zerbitzua berdintasun baldintzetan jasotzeko eskubidea.
c) Zerbitzua haurraren adinera eta, behar bezala justifikatutako kasuetan, haren osasun- edo elikadura-premietara egokitutako arreta jasotzea.
d) Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztea.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

7. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Erabiltzaileen legezko ordezkariek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendu egokirako beharrezkoa den informazioa ematea eta eguneratua mantentzea.
b) Haurraren osasunean, alergietan, intolerantzietan edo elikadura-behar berezietan eragina izan dezakeen edozein inguruabarren berri ematea.
c) Zerbitzuaren erabileragatik egin beharreko ordainketa epe eta modu egokian egitea.
d) Zerbitzuko langileek emandako jarraibideak errespetatzea eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia erraztea.

III. KAPITULUA

ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA KONTROLA

8. artikulua. Zerbitzuaren egutegia eta ordutegia.

Jangela-zerbitzua ikasturte bakoitzean emango da, dagokion ikasturterako ezartzen den eskola-egutegiari egokituta. Egutegia eta, hala badagokio, funtzionamendurako jarraibide osagarriak ikasturte bakoitzaren hasieran jakinaraziko dira.

Zerbitzua bazkari-orduan emango da, haurrak hezkuntza-jarduera egiten duen zentroak horretarako ezarritako ordutegiaren arabera.

9. artikulua. Zerbitzuaren kudeaketa.

Zerbitzua Oiartzungo Udalak emango du, zuzenean edo zeharka, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako kudeaketa-moduen bitartez. Zeharka ematen den kasuetan, administrazioen kontratuak arautzen dituen legearen baitan izapidetuko da prozesua.

Zerbitzuaren prestazioa gauzatzen duten pertsonek edo enpresek indarrean dagoen osasun-, higiene-, segurtasun- eta elikadura-arloko araudia bete beharko dute, baita zerbitzuaren kalitatea bermatzeko ezartzen diren gainerako baldintzak ere.

Zerbitzua hirugarren baten bitartez ematen denean, udalaren ikuskapen-, kontrol- eta jarraipen-ahalei kalterik egin gabe emango da.

Zerbitzua zuzenean nahiz zeharka ematen denean, zerbitzua ematen duten langileak eta, hala badagokio, enpresa adjudikaziodunak Oiartzungo Udalaren hizkuntza-irizpideak bete beharko ditu, eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

10. artikulua. Udalaren ahalmenak.

Oiartzungo Udalak, zerbitzuaren titular gisa, honako ahalmen hauek izango ditu:

a) Udalerrian dauden beharrak identifikatzea eta zerbitzuaren eskaintza behar horietara egokitzea.
b) Zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatzea.
c) Zerbitzua emateko beharrezkoak diren jarraibideak eta irizpide teknikoak ezartzea.
d) Zerbitzuari buruzko informazioa eta publizitatea egitea eta haren zabalkundea sustatzea.
e) Araudi hau interpretatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren ebazpenak ematea.

ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

11. artikulua. Ikuskapena eta kontrola.

Oiartzungo Udalak zerbitzuaren funtzionamendu egokia zainduko du eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen, jarraipen eta kontrol jarduketak egin ahal izango ditu, baita zerbitzua hirugarrenen bidez ematen denean ere.

12. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Jangela-zerbitzuaren kudeaketaren ondorioz tratatzen diren datu pertsonalak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko dira, eta zerbitzuaren antolaketa, kudeaketa, kontrola eta finantzaketarekin lotutako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Bereziki babestuko dira erabiltzaileen osasunari, alergiei, intolerantziei edo elikadura-premia bereziei buruzko datuak.

Zerbitzuaren prestazioan parte hartzen duten pertsona edo erakunde guztiek tratatzen dituzten datuen konfidentzialtasuna bermatu beharko dute, eta datu horiek ezin izango dituzte hirugarrenei jakinarazi, legeak baimentzen dituen kasuetan izan ezik.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

2026ko irailaren 30ean hasiko da indarrean araudi hau.

EKS | CSV: ESKU27e60d6d-9e20-42e5-a1dc-554327174255

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026ID370011-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)

Digitalki sinatua:

Maria Victoria Joaristi Olariaga
Hirigintzako Administrazio Bereziko Teknikaria / Letradua
Data: 2026/09/30 08:50:22

Digitalki sinatua:

Joana Mendiboure
Alkatea
Data: 2026/09/30 10:41:35